Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2019ko maiatzaren 6a, astelehena — 83 — Lunes, a 6 de mayo de 2019

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### EKONOMIA SUSTAPENEKO, LANDA INGURUNEKO ETA LURRALDE OREKAKO DEPARTAMENTUA

*Gastronomia 4.0 programaren 2019. urteko deialdia*

Diputatuen Kontseiluak honako erabaki hau hartu du 2019ko apirilaren 16an:

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikiz proiektuaren bidez Gipuzkoaren etorkizuneko erronkak identifikatu nahi ditu eta erronka horiei erantzuna eman nahi die, irtenbide zehatz, erreal eta eraldatzaileen bitartez, gastronomiaren balio katea delarik han sartutako proiektu estrategikoetako bat.

Euskadi orokorrean, eta Gipuzkoa bereziki, gastronomia munduko erreferente mundialetako bat da zalantzarik gabe. Gipuzkoako Foru Aldundiak duen erronka da Gipuzkoako gastronomia sektorearen pribilegiozko maila hau mantentzea. Maila hau nabarmena da jatetxeetan eta goi-mailako sukaldaritzan, baina baita ere «Gastronomia Ekosistema» izeneko beste eragile batzuetan, bere balio kate guztian zehar, ekoizleetan hasten dena eta prestakuntza eta osagaien industriatik pasatzen dena azken kontsumitzailera iritsi arte.

Hainbat joera identifikatu dira, beste herrialde batzuetan jada lantzen ari direnak, hala nola produktuen eta izakinen kudeaketa inteligentea, produktuen trazabilitatea eta kontserbazioa, produktuen eraldaketa eta prestaketa presio eta tenperatura baldintza jakinetan, elikagaiak prestatzeko sistema berriak, jangarrien «3D inprimaketa», negozio eredu berrien identifikazioa. Gipuzkoak gastronomiaren sektorean erreferentzia izaten jarraitu nahi badu, ahaleginak egin behar ditu etorkizuneko joera horiek modu proaktiboan bultzatzeko.

Horretarako, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko Berrikuntzako eta Internazionalizazioko Zuzendaritzak, Etorkizuna Eraikiz programaren esparruan definitutako estrategiarekin bat eginez, Gipuzkoako gastronomiaren balio katean dauden enpresei laguntzeko lerro berri bat definitu nahi du.

Gastronomia 4.0 programaren bidez bilatzen da teknologia berriak balio kate osoan erabiltzea, eragile guztietara iritsi daitezen, eta teknologia berri horien inpaktuari aurrea hartzea, negozio eta kudeaketa eredu berriak definituz. Gainera, programa honek berrikuntza sustatzen du sektorean, nazioarteko lidergoa bultzatuz.

Programa honen bidez lortu nahi da Gipuzkoa gastronomiaren arloko erreferente mundiala izan jarraitzea, baita XXI. mendeko gizarte berri honetan ere, kalitatezko ezaugarriak dituelako, elikadura osasungarri eta jasangarria bultzatzen duelako, eta teknologia berriak erabiltzea sustatzen duelako, negozio eredu eta soluzio berriak diseinatzerakoan. Horretarako, gastronomiaren sektorearen eraldaketa digitala sustatzen da, helburutzat hartuta aldaketak eragitea osagaien eta etxeko gauzen industrian, jatetxeen eta zerbitzu osagarrien sektoreetan jada badauden negozio ereduen bilakaera sustatzea, eta eredu berriak identifikatzea, teknologiak eskaintzen dituen aukera guztiak baliatuz.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, MEDIO RURAL Y EQUILIBRIO TERRITORIAL

*Convocatoria 2019 del programa Gastronomía 4.0*

El Consejo de Gobierno Foral ha adoptado el siguiente acuerdo en su reunión de 16 de abril de 2019:

La Diputación Foral de Gipuzkoa a través del proyecto Etorkizuna Eraikiz pretende identificar y dar respuesta a los retos de futuro de Gipuzkoa con soluciones concretas, reales y transformadoras, siendo la cadena de valor de la gastronomía una de las apuestas estratégicas del Territorio.

Euskadi en general y Gipuzkoa en particular es indudablemente uno de los referentes mundiales en el mundo de la gastronomía. El reto que la Diputación Foral de Gipuzkoa se plantea es colaborar en el mantenimiento del sector gastronómico de Gipuzkoa en esta posición de privilegio. Este posicionamiento es evidente en la restauración y la alta cocina, pero lo es también en otros agentes del denominado «Ecosistema Gastronómico», a lo largo de la cadena de valor que comienza en los productores y pasa por la formación y por la industria de componentes, hasta llegar al consumidor final.

Algunas de las tendencias identificadas y que otros países están ya trabajando, son entre otras la gestión inteligente de los productos y existencias, trazabilidad de los productos y su conservación, transformación y elaboración en condiciones de presión y temperatura, nuevos sistemas de elaboración de alimentos, «impresión 3D» con comestibles, identificación de nuevos modelos de negocio. Si Gipuzkoa aspira a mantener su papel de referencia en el sector gastronómico, debe también realizar esfuerzos por incorporarse de manera proactiva a estas tendencias de futuro.

Para ello, desde la Dirección de Innovación e Internacionalización del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial y en línea con la estrategia definida en el marco de Etorkizuna Eraikiz impulsa la definición de una nueva línea de apoyos a las empresas que pertenecen a la cadena de valor de la gastronomía de Gipuzkoa.

Gastronomía 4.0 es un programa que pretende potenciar el uso de las nuevas tecnologías en la cadena de valor de manera que su aplicación llegue al conjunto de agentes, busca anticipar su impacto definiendo nuevos modelos de negocio y de gestión, e impulsa la innovación en el sector y el liderazgo a nivel Internacional.

El programa tiene por objetivo lograr que Gipuzkoa siga siendo un referente mundial en la gastronomía en la nueva sociedad del siglo XXI además de por sus atributos de calidad, alimentación saludable y sostenible, por la incorporación de las nuevas tecnologías en la configuración de nuevas soluciones y modelos de negocio, para ello impulsa la transformación digital del sector de la gastronomía en Gipuzkoa en orden a provocar cambios en la industria de componentes y del hogar, así como evolucionar los modelos de negocio existentes en la restauración y servicios complementarios e identificar nuevos desde el aprovechamiento de las posibilidades que la tecnología ofrece.

EK\CV GAO-I-2019-02791

Joan den ekitaldian programa berria atera zen. Arrakasta handia izan zuen eta xedatuta zegoen aurrekontua gainditu egin zen. Horregatik, uste da ez dela beharrezkoa aldaketa sakonak egitea. Dena den, deialdian aldaketa batzuk proposatzen dira, alde batetik, elkarlanean egindako proiektuen kasuan, aurkeztu behar den informazio tipologia deskribatzeko idazkera hobetze aldera, eta, bestetik, proiektu eta urte bakoitzeko gehieneko dirulaguntzen murrizketa, proiektu gehiagoetara iristeko.

Dirulaguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2017-2019 Diru Laguntzen Plan Estrategikoan jasota daude.

Ondorioz, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuko foru diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak eztabaidatu ondoren,

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Gastronomia 4.0 izeneko dirulaguntzen 2019. urteko deialdia, erabaki honen eranskin modura doana.

*Bigarren.* 2019ko ekitaldiko deialdiari aurre egiteko hirurehun eta hirurogei mila euroko (360.000,00 €) gastua baimentzea, aurrekontu sail hauen arabera:

1 0410.100.470.00.32 2019: 100.000 €.

1 0410.100.481.00.22 2019: 65.000 €.

5 0410.100.470.00.32 2020: 100.000 €.

5 0410.100.481.00.22 2020: 95.000 €.

Aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak onartutako gastuaren zenbatekoa handitu ahal izango du, deialdi berri bat egin gabe. Kopuru gehigarria eraginkorra izateko baldintza izango da diru laguntzak ematea ebatzi aurretik kreditua erabilgarri deklaratzea.

Erabaki hau behin betikoa da eta administrazio-bideari amaiera ematen dio. Interesdunek erabakiaren kontrako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko diote, zuzenean, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari, bi hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik hasita.

Hala ere, aldez aurretik, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahalko diote Diputatuen Kontseiluari, hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik hasita. Kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu berraztertzeko errekurtsoari espresuki erantzun arte edo ustezko ezestea gertatu arte. Horrez guztiaz gain, egokitzat jotako beste errekurtso oro aurkeztu ahalko da.

Donostia 2019ko apirilaren 30a.—Alfonso Acarreta Rodriguez, Departamentuko idazkari teknikoa. (2791)

ERANSKINA

*Gastronomia 4.0 programaren 2019ko deialdia*

*1. Helburua.*

Gastronomia 4.0 programaren diru laguntzak deitzea 2019. ekitaldirako. Programa honen xedea da gastronomiako balio kateko enpresa Gipuzkoarren eraldaketa sustatzea, teknologia berrien eta berrikuntza integralaren erabilera indartuz (produktua, zerbitzuak, kudeaketa, prozesuak, industrializazioa, eta abar...), haien inpaktuari aurrea hartuz, negozio eta kudeaketa eredu berriak definituz, sektorearen barruko belaunaldi aldaketa eta nazioarteko lidergoa bultzatuz. Programaren oinarri arautzaileak 2018ko uztailaren 17ko Diputatuen Kontseiluan onartu ziren (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 143 zk. 2018-07-25).

El pasado ejercicio se lanzó el nuevo programa con un éxito notable que sobrepasó el presupuesto disponible, por lo que se considera que no es necesario introducir cambios de profundidad en el mismo, no obstante, se proponen algunos cambios en la convocatoria para recoger una mejor redacción para describir la tipología de información a presentar en el caso de proyectos en colaboración y una reducción de las subvenciones máximas por proyecto, a fin de dar posibilidad de accesos a un mayor número de proyectos.

Estas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2017-2019 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En consecuencia, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial y previa deliberación, el Consejo del Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar la convocatoria 2019 de las subvenciones del programa Gastronomía 4.0, que se adjunta al presente acuerdo como anexo.

*Segundo.* Autorizar un gasto por importe de trescientos sesenta mil euros (360.000,00 €) para hacer frente a la convocatoria del ejercicio 2019 con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

1 0410.100.470.00.32 2019: 100.000 €.

1 0410.100.481.00.22 2019: 65.000 €.

5 0410.100.470.00.32 2020: 100.000 €.

5 0410.100.481.00.22 2020: 95.000 €.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello, sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 30 de abril de 2019.—El secretario técnico del Departamento, Alfonso Acarreta Rodriguez. (2791)

ANEXO

*Convocatoria 2019 del programa Gastronomía 4.0*

*1. Objeto.*

Convocar para el año 2019, las subvenciones del programa Gastronomía 4.0 que tiene por objeto el impulsar la transformación de la empresa guipuzcoana perteneciente a la cadena de valor de la gastronomía, potenciando el uso de las Nuevas Tecnologías y la Innovación Integral (producto, servicios, gestión, procesos, industrialización, etc...) en sus empresas, anticipando su impacto y definiendo nuevos modelos de negocio y de gestión, e impulsando el relevo generacional en el sector y su liderazgo a nivel internacional y cuyas bases reguladoras fueron aprobadas en el acuerdo de Consejo de Gobierno Foral del 17 de julio de 2018 (Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 143 de 25 de julio).

EK\CV GAO-I-2019-02791

*2. Finantzaketa.*

2.1. Guztira deialdi honetan emango diren laguntzen zenbatekoa 360.000,00 eurokoa da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorreko ondorengo kontu sailetan banatuta dago:

1 0410.100.470.00.32 2019 100.000,00 €.

1 0410.100.481.00.22 2019 65.000,00 €.

5 0410.100.470.00.32 2020 100.000,00 €.

5 0410.100.481.00.22 2020 95.000,00 €.

2.2. Baimendutako gastuaren zenbatekoa handitu egin daiteke, aurkeztutako eskaerak ebatzi aurretik, aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena duen organoak, deialdi berri bat egin beharrik izan gabe. Gehikuntza hori benetan gertatzeko, ezinbestekoa da dirulaguntzak onartzen dituen ebazpena eman aurretik nahikoa kreditu dagoela deklaratzea.

*3. Eskaerak aurkezteko epea.*

3.1. Eskaerak aurkezteko epea hilabete bat izango da deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurkeztu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun balioduna izango da azken eguna.

3.2. Proiektuek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiak behar dute izan.

*4. Eskaerarekin batera aurkeztu behar diren agiriak.*

4.1. «Diru laguntzen ataritik» sartuko da eskatzailea eskaerara. Eskaeran, eskatzailearen identifikazio datuez gain, erantzukizuneko aitorpen bat ere jasoko da.

4.2. Eskaerarekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

a) Proiektua baloratzeko galdetegia. Galdetegian proiektuari buruzko hainbat informazio eskatuko da ikuspegi teknikoaren aldetik eta merkatuaren ikuspegitik, eta baita ere enpresari buruzko informazioa, eta duela gutxiko eta aurreikusitako bilakaerari buruzko datuak, beharrezkoak baitira enpresa proiektuaren bultzada-gaitasuna ebaluatzeko. Elkarlanean egindako proiektuen kasuan, enpresa liderrak galdetegia bete beharko du eta proiektuan parte hartu duen enpresa bakoitzak imprimaki zehaztua bete beharko du.

b) Dirulaguntza eskatzen den proiektuko jardueren kronograma: jarduera bakoitzeko ezarritako datak eta dagozkion kostuak zehaztu beharko dira.

c) Proiektuan parte hartu duen enpresa bakoitzaren aurrekontu xehatua formatu estandarrean.

d) Edukiz gero, proiektuaren azalpen zabaldua, gehienez 10 orrikoa. Enpresak nahi duen formatuan aurkeztu dezake.

e) Edukiz gero, genero berdintasunaren eta euskararen arloko entitate eskumendunek igorritako ziurtagiriak, edo dagozkien planak eta planak ezarri izanaren frogak.

f) Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela erakusten duten ziurtagiriak. Ez da horiek aurkeztu beharrik izango baldin eta eskaeran baimena eman bazaio laguntzak kudeatzen dituen departamentuari aipatu datuak zuzenean eskuratzeko organo eskudunetatik. Elkarlanean egindako proiektuen kasuan, enpresa bakoitzaren Ogasunarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean dagoela erakusten duten ziurtagiriak.

g) Elkarlanean egindako proiektuen kasuan, enpresen arteko lankidetza akordioa.

h) Elkarlanean egindako proiektuen kasuan, enpresen erantzukizunpeko aitorpenak (zigor administratiborik ez izatea eta 3/2007 Foru Arauak ezarritako debekuen eraginpean ez egotea).

*2. Financiación.*

2.1. La cuantía total de las subvenciones a conceder en esta convocatoria será de trescientos sesenta mil (360.000,00) euros con cargo a las siguientes partidas de los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa:

1 0410.100.470.00.32 2019 100.000,00 €.

1 0410.100.481.00.22 2019 65.000,00 €.

5 0410.100.470.00.32 2020 100.000,00 €.

5 0410.100.481.00.22 2020 95.000,00 €.

2.2. El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria. La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito en un momento anterior a la resolución de la concesión de las subvenciones.

*3. Plazo de presentación de solicitudes.*

3.1. El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Si la finalización del plazo recayera en sábado, domingo o inhábil, se trasladará al día hábil inmediatamente siguiente.

3.2. Los proyectos deberán haberse iniciado a partir de la fecha de 1 de enero de 2019.

*4. Documentación que acompaña a la solicitud.*

4.1. A través del «Portal de subvenciones» se accederá a la solicitud, que además de los datos identificativos de la entidad solicitante, incluye la declaración responsable.

4.2. A la solicitud deberá adjuntarse la siguiente documentación:

a) Cuestionario para la valoración del proyecto. En el mismo, se requerirá diversa información sobre el proyecto, desde un punto de vista técnico y de mercado, así como de la propia empresa, evolución reciente y prevista, que permitirá evaluar el potencial de tracción del proyecto empresarial. En el caso de proyectos en colaboración, la entidad que actúe como líder cumplimentará el cuestionario y las entidades colaboradoras cumplimentarán cada una de ellas el formulario simplificado.

b) Cronograma de las actividades del proyecto para el que se solicita la subvención: con indicación de las fechas establecidas para cada una de ellas, y sus costes.

c) Presupuesto desglosado según formato estándar, por cada una de las entidades participantes en el proyecto.

d) En su caso, descripción ampliada del proyecto de un máximo de 10 páginas en el formato que la empresa considere oportuno.

e) En su caso, certificados emitidos por entidades competentes en materia de igualdad de género y/o euskera, o planes correspondientes junto con evidencias de su implantación.

f) Certificados de estar al corriente con Hacienda y con la Seguridad Social. No es necesario adjuntarlos si en la solicitud se ha dado consentimiento para que el departamento gestor de la subvención recabe directamente los referidos datos de las administraciones competentes para emitirlos. En el caso de proyectos en colaboración, certificados de estar al corriente con Hacienda y Seguridad Social de cada empresa que ha colaborado en el proyecto.

g) En el caso de proyectos en colaboración, acuerdo de colaboración entre las partes.

h) En el caso de proyectos en colaboración, declaración responsable de las colaboradoras (no sancionada y no afecta a prohibiciones de la Norma Foral 3/2007).

EK\CV GAO-I-2019-02791

*5. Dirulaguntzak zuritu eta ordaintzea.*

Onartutako dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

— Entitate onuradunek hilabeteko epea izango dute laguntzaren lehengo zatia ordaintzea eskatzeko, dirulaguntzari dagozkion jarduketak egiteko beharrezkoa den finantzazio gisa.

— Bigarren zatia ordaintzea eskatzeko, proiektua erabat burutu dutela zurituko dute 2020ko irailaren 30a baino lehen. Ordaintzeko eskaerarekin batera 15.3 oinarrian aurreikusitako zurigarriak aurkeztuko dira.

Hala ere, proiektua amaitu aurretik, 14.1 oinarrian aurreikusten den bezala, entitate onuradunek laguntzaren bigarren zatiaren ordainketa aurreratua eska dezakete.

*6. Dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa.*

6.1. Enpresen kasuan, gehieneko dirulaguntzak % 30ekoak izango dira, barne langileen gastuen kasuan, eta % 50ekoak, berriz, kanpoko gastuen eta azpikontratazioen kasuan.

Enpresa txiki eta ertainen kasuan, portzentaje horiek % 10 handiagoak izango dira.

6.2. Irabazi asmorik gabeko entitateen kasuan, dirulaguntza kostuen % 80koa izango da. Lortutako puntuazioa 70 puntu baino handiagoa bada, kostuen % 100ekoa izango da.

6.3. Proiektu eta urte bakoitzeko gehieneko dirulaguntza 30.000 eurokoa izango da; elkarlanean egindako proiektuen kasuan, berriz, 40.000 euroraino igo daiteke.

*7. Borondatezko itzulketa.*

Onuradunak borondatezko itzulketa egin nahi badu, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako foru diputatuari 17.3 oinarrian zehazten den moduan. Idatzi horrekin batera, agiri bat aurkeztu behar du egiaztatzeko itzulketa ES73 2095 0611 09 1061070594 kontuan egin duela.

*5. Justificación y pago de las subvenciones.*

El abono de la subvención concedida se realizará en dos pagos:

— Las entidades beneficiarias tendrán un mes de plazo para solicitar el pago de la primera parte de la ayuda, como financiación necesaria para poder llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención.

— Para solicitar el segundo pago, deberán justificar la realización completa del proyecto antes del 30 de septiembre de 2020, acompañando a la solicitud la documentación justificativa prevista en la base 15.3.

No obstante, con anterioridad a la finalización del proyecto y tal como se prevé en la base 14.1, las entidades beneficiarias podrán solicitar el abono anticipado de esta segunda parte de la ayuda.

*6. Importe máximo de las subvenciones.*

6.1. En el caso de empresas las subvenciones máximas a aplicar serán del 30 % en el caso de gastos internos de personal y del 50 % en los gastos externos y subcontrataciones.

En el caso de pymes estos porcentajes serán un 10 % superior.

6.2. En el caso de las entidades sin ánimo de lucro la subvención será del 80 % de los costes. Si la puntuación obtenida supera los 70 puntos, será del 100 % de los costes.

6.3. La subvención máxima por proyecto y año será de 30.000 €; en el caso de proyectos en colaboración el máximo aplicable podrá ascender a 40.000 €.

*7. Devolución voluntaria.*

En el caso de que el beneficiario proceda a la devolución voluntaria, dirigirá un escrito a la diputada foral del Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial, tal y como señala la base 17.3, junto con la acreditación de dicha devolución en la cuenta tesorera: ES73 2095 0611 09 1061070594.

EK\CV GAO-I-2019-02791

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

# Gastronomia 4.0 programa
# Programa Gastronomía 4.0

## ESKAERA ORRIA / HOJA DE SOLICITUD

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Sarrera erregistroa**<br>**Registro de entrada** | **Data**<br>**Fecha** | | **Zenbakia**<br>**Número** |
| **Espedientea**<br>**Expediente** | **Data**<br>**Fecha** | | **Sarrera kodea**<br>**Código acceso** |
| **Egoera**<br>**Situación** | **Fasea**<br>**Fase** | | |

### ESKATZAILEAREN DATUAK / DATOS DEL SOLICITANTE

**Eskatzailearen izena**
**Nombre solicitante** — **H / G:** — **M / E:**

**IFZ/IFK**
**NIF/CIF**

**Helbidea**
**Domicilio**

**P.K.**
**C.P.** — **Herria**
**Municipio** — **Lurralde Histo-rikoa**
**Territorio Histórico**

**Telefonoak**
**Teléfonos** — **Faxa**
**Fax**

**Posta elek.**
**Email** — **Ktu. zk.**
**Cta. Cte.**

### HARREMANETAKO PERTSONAREN DATUAK / DATOS DE LA PERSONA DE CONTACTO

**Pertsonaren izena**
**Nombre de la persona** — **H / G:** — **M / E:**

**Helbidea**
**Domicilio** — **Posta Kodea**
**Código Postal**

**Herria**
**Municipio** — **Lurralde Historikoa**
**Territorio Histórico**

**Telefonoa**
**Teléfono** — **Telefonoa**
**Teléfono**

**Helbide elektronikoa**
**Correo electrónico** — **Faxa**
**Fax**

**IFK / CIF**

EK\CV GAO-I-2019-02791

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

**Konkurrentzia deklarazioa**
Declaración de concurrencia

**Aitortzen dut ez ni ezta nik ordezkatzen dudan entitatea ere ez gaudela sartuta 2007ko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten dituen onuradun izaera lortzea eragozten duten egoeratan. Aldi berean, entitatea ez dago 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak aurreikusten dituzten onuradun izateko debeku egoeraren batean.**

**Declaro que no concurren en mí ni en la entidad a la que represento ninguna de las circunstancias que impiden obtener la condición de persona o entidad beneficiaria, previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa. Asimismo, tampoco se encuentra sometida a ninguno de los supuestos de prohibición para ser beneficiaria de subvenciones previstos en la Ley 4/2005, de 18 de febrero de 2005, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.**

**Komunikazio onartzea**
Aceptación de comunicaciones

**Onartzen dut eskaerari buruzko komunikazioetarako posta elektronikoa lehenestea. Nire gain hartzen dut eman dizuedan helbide elektronikoaren funtzionamendu egokia ziurtatzeko ardura.**

**Acepto que las comunicaciones sobre la solicitud se hagan preferentemente por correo electrónico. Me responsabilizo del correcto funcionamiento de la dirección aportada.**

**Erakunde edo pertsona eskatzaileak baimena ematen dio dirulaguntzaren departamentu kudeatzaileari organo lagatzailearen ondorengo datuen kontsulta egin dezan:**

**La entidad o persona solicitante da su consentimiento al departamento foral gestor de la subvención para que consulte del órgano cedente los datos de:**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Zerga betebeharrak egunean dituela<br>Cumplimiento de las obligaciones tributarias** | | Bai /Sí | | Ez, agiria eransten da / No, se adjunta certificado |
| **Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituela Cumplimiento de las obligaciones con la Seguridad Social** | | Bai /Sí | | Ez, agiria eransten da / No, se adjunta certificado |

**Izena**
**Denominación**

**Proiektuaren azalpena**
**Descripción Proyecto**

EK\CV GAO-I-2019-02791

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentua
Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial

## PROIEKTU HONEK ESKATUTAKO/JASOTAKO BESTELAKO LAGUNTZAK
## OTRAS AYUDAS SOLICITADAS/CONCEDIDAS POR EL MISMO PROYECTO

Entitate eskatzaileak honako dirulaguntzak jaso edota eskatu ditu, gaur arte, proiektu hori bera laguntzeko. Era berean, entitate horrek konpromisoa hartzen du herri erakunde publikoetan nahiz pribatuetan, gaurtik hasi eta zerga ekitaldia amaitu bitartean, aurkezten duen dirulaguntza eskaera ororen berri emateko.

La entidad solicitante, hasta ahora, además de la presente solicitud de ayudas, ha presentado y/o recibido las siguientes ayudas por el mismo proyecto. La entidad deberá comunicar cuantas solicitudes de ayuda presente en cualquier organismo público o privado a partir de la fecha de hoy hasta finalizar el presente ejercicio.

| Erakundea<br>Organismo | Deialdia Convocatoria | Onartze data<br>Fecha de aprobación | Zenbatekoa<br>Importe | Onartutako diru-laguntza<br>Subvención concedida |
|---|---|---|---|---|
| | | | GUZTIRA/TOTAL | |

## MINIMIS LAGUNTZEN AITORPENA
## DECLARACIÓN AYUDAS MINIMIS

Gainera, erakunde eskatzaileak aitortzen du, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan aurrekontu publikoen kargura finantzatutako erakunde publiko edo pribatuen minimis izeneko dirulaguntza hauek (200.000 baino gutxiagokoak) eskuratu dituela.

Además, la entidad solicitante declara que las ayudas de minimis de entidades públicas o entes privados financiados con cargo a presupuestos públicos recibidos en el ejercicio fiscal en curso y durante los dos ejercicios fiscales anteriores, cuyo importe total es inferior a 200.000 son las siguientes.

| Erakundea<br>Organismo | Deialdia<br>Convocatoria | Onartze data<br>Fecha de aprobacion | Zenbatekoa<br>Importe |
|---|---|---|---|
| | | GUZTIRA/TOTAL | |

**Oharrak**
**Observaciones**

**_________________________, 201___ko ___________________ (a)ren ______(a)**

**En _____________________________ a ______ de ________________ de 201__**

**Izptua. (Sinadura eta zigilua)**
**Fdo.: (Firma y sello)**

EK\CV GAO-I-2019-02791